

atxikimendua), emozio autokontzienteak (erru sentimenduak, lotsa, harrotasun morala), generoaren araberako ezberdintasunak emozioetan eta emozioak esparru sozialean eta klinikotan. Gai horiei buruzko argitalpen andana du aldizkari zientifikoetan. Psikologia orokorreko irakasle aritu izan da eta, horrez gainera, askotariko prestakuntza eskaini izan du moraltasunaren psikologiari buruz, gaitasun sozioemozionalen inguruan, eskola-ingurunean garapen morala laguntzeko programei buruz, edota emozioa eta portaera eremu moralean, prosozialaren garapena, emozio moralak, emozio autokontzienteak... gai hartuta. Irakasle eta ikertzaile gisa egindako bide luzeak nazioartean emozioez eta moralaz jakintza gehien metatu duten adituen artean kokatu du. Hain zuzen ere, horrek egiten du egilea pertsona egoki hizpide dugun liburua egiteko.

Eskertu egin behar diot Itziar Etxebarriari moralaren inguruko ikerketan eduki berritzaileak eskaintzeko egindako ahalegina. Uste dut hortik etorriko direla hezkuntza moralerako, etikarako eta hezkuntza emozionalerako aldaketa berritzaileak. Izan ere, liburu honek laguntzen du oinarria jartzeko hezkuntza emozionalari, zeina beti jo izan den balioen hezkuntzaren eta hezkuntza moralaren alor paralelotzat. Liburu honen bidez, argi egiten zaio bi ikuspegiren (moral eta emozionala) gurutzatzeari, eta horrek batasuna dakar hezkuntza-praktikan aritzeko.

Arrazoi horiek guztiak direla eta, liburuari oso gomendagarri deritzot emozioen eta moralaren gaiari buruzko interesa duten psikologiaren alorreko profesionalentzat, hezkuntzaren esparruko profesionalentzat, batez ere hezkuntza moralaren eta hezkuntza emozionalaren inguruko interesa dutenentzat, eta dimentsio emozionala eta morala bezalako funtsezko gaiak jorratzeko joera berrietan egunean egon nahi duen ororentzat.

*Bisquerra, Rafael*

*(Red Internacional de Educación Emocional y Bienestar,  
RIEEBeko lehendakaria, www.rieeb.com)*

SANCHO, J. M.; HERNÁNDEZ, F.; MONTERO, L.; DE PABLOS, J.; RIVAS, J. I. eta OCAÑA, A. (koord.) (2020)

*Caminos y derivas para otra investigación educativa y social.* Barzelona: Octaedro

Liburu hau punta-puntako 54 akademikoren lankidetzari esker gauzatu da. Gehienak REUNI+D (*Red Universitaria de Investigación e Innovación Educativa*) bikaintasun-sareko kideak dira, eta 2004. urteaz geroztik elkarrekin ari dira, espainiar ikerketa-eremuan konsolidaturiko 11 ikerketa-taldetan, 150 ikertzaileekin batera. Ohiko sare horretako kideei beste bost ikertzaile aditu batu zaizkie lan honetan, horietako 2 nazioartekoak.

Liburu honek hezkuntza eta gizarte ikerketaren funts tradizionalak hankaz gora jartzen ditu eta, arrazoi horregatik, garrantzitsua da egileen kopurua eta pisu akademikoa azpimarratzea. Ibilera luze eta sendoko ikertzaile horien guztien hausnarketa eta eztabaida luze, sakon eta informatuen emaitzak laburbiltzen eta jasotzen dira testuan, eta beren posizionamendu berri-tzailea modu egokian oinarriturik ageri da.

Hezkuntzaren ikerketaren esparruan eskarmentua dutenentzat da baliagarria lan hau, zehazki, jarduteko moduak eta ikertzaile-nortasuna berrikusi nahi dutenentzat. Baina bereziki baliagarria da ikerketan lehen urratsak emateko prestatzen ari direnentzat, esaterako, tesi-proiektua idazten ari direnentzat. Horientzat urre gorritzko altxorra dela esango nuke; nik behintzat, edozer eman izango nukeen nire ikerketa-ibilbidearen hastapenetan testu hau esku artean izateagatik.

Izan ere, testu honetan modu trinko eta argian eskaintzen dira ikerketa modu tradizionalak dituen mugak, eta horiek agerian uzten dituzten kuestionamenduak (ikerlariaren ustezko neutraltasuna, ikerketa-eremu konplexuei erantzuteko ezintasuna, e.a.). Halaber, kuestionamendu eta hausnarketa horien iturburu diren mugimenduen funtsak (poshumanismoa, feminismoak, dekolonialismoa, e.a.) azaltzen dira.

Liburua hiru atal nagusitan dago banatuta, eta *collage* modura dago planteatua, puntuz puntu jarraitzen diren eskuliburuetatik urrun:

- *Ontoepistemologia emergenteak*. Post mugimenduen azalpen aberatsa egiten da atal hau osatzen duten zazpi kapituluetan.
- *Perspektiba metodologikoak*. Ikerketa partehartzailea, arteetan oinarrituriko ikerketa eta gisako ildo metodologiko berritzaileak aurkezten dira modu argian zortzi kapitulutan.

*Etika, ebaluazioa, dibulgazioa, inpaktua eta ikerketaren erantzukizuna*. Ikerketa gizartearen eraldaketa sustatzeko tresna, ikerketa aktibista, eta antzeko gaien inguruko hausnarketa egiteko gonbita egiten zaio irakurleari atal hau osatzen duten hiru kapituluen multzoan.

Amaitzeko, lan hau txalotu nahiko nuke egileek bertan islatu duten zintzotasun intelektualagatik eta erakutsi duten ausardia akademikoagatik. Egungo ezagutzaren mugetan kokatzen dute beren ekoizpena, ikerketa-bide berriak proposatuz, irudimena aldarrikatuz errealitatea bere konplexutasunean arakatu eta ezagutu ahal izateko. Funtsean, pentsatzera gonbidatzen gaituzte, jakina dena gainditzeko iradokizuna eginez. Izan ere, lan hau ez da lan preskriptiboa, ez eta ikerketa metodologia kuantitatiboan kontrako aldarrikapen bat ere: hezkuntza- eta gizarte-ikerketan bilakaera eta bide irekiak arakatzera gonbidatzen gaituen askotariko ahotsen bilduma bat da.

*León Guereño, Margarita Silvestra (i2basque, akademia eta ikerketa sarea eta UPV/EHUko Elkarrikertuz ikerketa taldea)*